

BILBO EUSKAL METROPOLIA, HIRI-EREMU ERAKARGARRIA

Gaian sartzeko, irudikapenak agerraraz:

Ikasleen irudikapenen, bizipenen eta ezagutzen erabiltzea baliagarri da ikasleak ikasteko urraspidean ezartzeko. Jarduera honek gaiaren nondik norakoa erakutsi behar du: zertan diren gaiari buruz eta zer lortu behar duten. Halaber, ikasleen bizipenetatik eta irudikapenetatik abiatuz, gaia konkretuago eta motibagarriago bihurtzea da helburua.

• Egin-moldea:

Gaian sartzeko bideak eta erabili euskarriak ugari dira, are gehiago geografian. Aktualitateko berri batetik has daiteke, edozein euskarritatik abiatuz, ikasleei galdera(k) eginez edo argazkia(k) erakutsiz. Garrantzitsuena hau da: jardueraren biribiltzea gaiaren helburuarekin lotuz; horretarako, ikasleen gogoetak baikorki erabiltzea eta denen ekarpenak balioztatzea. Adibidez:

1. adibidea: Berri bat irakurraraz edo entzunaraz, adibidez Euskal Elkargoak proposatu azken araua apartamentu turistikoari buruz.
2. adibidea: Galderak egin: *"Zer da hiria? Zer da metropolia? Noizbait joan zarete hiri batera opor denboran?... Noizbait egon ote zara Bilbon? Zenbat egun? Zeren egitera? (Gaur egun anitz jendeak hegazkina hartzen dute beste norabait joateko oporretara) Nola iritsi zinen? Nola mugitu zinen hirian? Zer ikusi edo bisitatu zenuen? Non lo egin zenuen? Hitz bat deskribatzeko ikusi edo sentitu zenuena hiri hori ikustean?..."*
3. adibidea: Argazkia(k) erakutsi, adibidez: txostenaren argazkia erakutsiz (edo beste bat) galdegin: *Zer ari dira? Nahi ote zenuke han bizi? Zergatik?..."*

• Ikasle guziek parte hartuko dutela segurtatuta:

Galderak arbelean idatz eta denei gako-hitzen bidez saio kaieran erantzutea galda (epe laburra eman).

• Ikasleen gako-hitzak arbelean bil:

Ikasleen erantzun guztiak egokiak dira; ez da zuzenketa egiterik. Ikasleek aldizka hitz bat idatziko dute arbelean (idazkari batek, edo bik, edo irakasleak berak). Ondotik, gako-hitzak gaika antolatzen saiatuko da kolore desberdinez inguratuz (garraioak, jarduerak, arazoak...).

Normalean, erantzunetan agertuko dira gaur egungo metropolien funtzioen eta antolaketen ezaugarri gehienak: garraioak (metro, hegazkin...), apartamendu turistikoak, museoak, gastronomia, erosketak ...

Interesatzen zaizkigun ezaugarriak ez badira agertu ikasleen erantzunetan, ahozko galderen bidez osatzen ahalko da. Adibidez, gure ikasle gehienak menturaz autoz joan dira Bilbora (hurbil bizi baikara), baina metropolien irisgarritasunaren nozioa lantzea interesatzen baitzaigu, ikasleei holako galderak egiten ahal dizkiegu:

-Atzeritarrik ikusi ote duzue Bilbon? Zuen ustez, nola heldu ziren Bilbora? (Aireportua, hegazkina, trenak, itsasontzia eta beste aipatuko dituzte.)

-Edo: Beste metropoli batean izan zarete? Zeinetan? Nola joan zineten hara? Adibidez, Parisera trenez edo hegazkinez.

I. Bilboren eraldaketa

Problematika

Nola pasatu da Bilbo krisian zen hiri industrial izatetik mundu mailako metropoli moderno eta erakargarri izatera?

Xerka ezazu!

1. Zergatik erraten zaio “Guggenheim efektua” Bilboko hiriaren garapenari?

Guggenheim efektua erraten zaio museo sortu denetik, Bilboko hiriak mundu mailan lortu duen arrakastaren ikurra baita.

- Erantzun zuzen bat baino gehiago izan daiteke. Bilboko hiriaren eraldaketaz jabetzea da helburua: azken 30-40 urteetan, industriagunetik zerbitzu hirira (turismoa), mundu mailako metropolia...

2. Bideoa: Bilboko urbanismo diseinuan nabarmentzen diren hiru proiektu hauta eta azal itzazu: eraikuntzaren izena, urtea, bertako jarduera, arkitektoaren izena eta jatorria.

Helburua ez da taula osoa zehatz-mehatz zuzentzea, baizik eta Bilboko hiriaren urbanismoaren (hiriaren elementuak) diseinu (arkitekto famatuak), modernitate (berriki egin obrak) eta kosmopolitismoa (jatorri desberdinak)...

Eraikuntza/gunearen izena	Urtea	Jarduera	Arkitektoaren izena	Jatorria
Metro Bilbao	1995	Azpiegitura/garraioa	Norman Foster	britaniarra
Guggenheim museoa	1997	Museoa (kulturala)	Frank Gehry	kanadarra
Zubizuria	1997	Azpiegitura / urbanizazioa	Santiago Calatrava	espainiarra
Euskalduna jauregia	1999	Auditorioa (kultura)	Federico Soriano Dolores Palacios	espainiarra
Aireportua	2000	Azpiegitura/garraioa	Santiago Calatrava	espainiarra
Domine Hotela	1995	hotela (turismoa)	Javier mariscal	espainiarra
Melia Hotela	2004	hotela (turismoa)	Ricardo Legorreta	mexikarra
Isozaki atea	2006	Azpiegitura / bulegoak	Arata Isozaki	japoniarra
Alhondiga (Azkuna zentroa)	2010	Arte-aisialdi zentroa (kultura)	Philippe Starck	frantsesa

3. **2.dok.:** Zer da Bizkaia Talent erakundearen helburua? Zer argudio erabiltzen du talentuen ekarrarazteko?

Bizkaia talent erakunde publikoa da, Bilbora goi mailako profesionalen ekarraraztea duena helburu. Grafikoko zenbakiak lortzeko molde zehatza ez badugu ezagutzen ere (ez da hori nahitezpadakoa), interesgarria da ikustea zein diren gaur egun hirien erakargarritasuna neurtzeko erabiltzen diren irizpideak berak. Eta nola ez, zifrek erakusten duten Bilbok duen tokia Europa mailan .

Argumentuak: bizi kalitatea ona (ingurumena), zerbitzu egokiak (osasun maila), segurtasuna, garapena: goi mailako ikasketak (zientzia, teknologia eta matematikako graduatuak), bizi maila gora: lansariak, beraz orokorki “gogobetetze maila” ona.

4. dok.: Argazkien arabera, zein jarduera nagusitzen dira zerbitzu-hirietan?

- Aisialdiak: ibilaldiak, Atletik, erosketak...
- Kultura- turismoa: Puppy, Guggenheim museoko txakurra
- gastronomia: pintxoak (Zazpi kaleak)
- Metroa: garraioak

5. dok.: Bilboko hiriaren eraldaketaren lau ezaugarri azpimarra itzazu testuan.

Ezaugarriak haien garrantziaren arabera sailka itzazu (1: garrantzitsuenak).

Bilboko hiriaren eraldaketa

XX. mendearen bukaeran, industria birmoldaketaren ondorioz, Bilboko *ekonomiaren aldaketa* izigarria izan da. Gaur egun, hiriak dinamismoa berreskuratu du eta zerbitzu-hiri bihurtu da. Bilbo turismo helmuga handia da.

Bilboko industria egitura aldatzen joan da eta hiriko hainbat eremu nagusi zaharberritu ditu. (...) Itsasadarraren berreskuratze prozesuari esker (...) Bilbo eta bertako biztanleak *ibaiko arteriari begira* bizi dira eta hau dela eta, *itsasadarreko alde bietan hiri proiekturik garrantzitsuenak eraiki dira*, non *munduko artista eta arkitekto onenen eraikin eta lanak* ikus daitezkeen (...) *aisia, kirol eta kultura ekintza* ugariz gozatzeko aukera ematen dutenak.

Bilboren eraldaketaren estrategia proiektu hau osatzeko, hainbat *azpiegitura eraiki dira*: *zubi berriak, metroa, aireportua eta tranbia* (holako asko arkitekto famatuek diseinaturik: Norman Foster, Santiago Calatrava...). Bilbo eta haren *auzotegiak inguruko eta nazioarteko eremuko hainbat lurralderekin lotura* itzela izateko mugikortasun *sare bikaina* osatzea lortu dute.

II. Metropolizaioa eta periurbanizazioa Bilbon

Problematika

Zer dira Bilboko hiri-eremuaren dinamika berriak?

Xerka ezazu!


1. **1-3. dok.:** Nola osatua da Bilbo Handia hiri-eremua? Urduliz Bilbo Handiko aldiri periurbanoaren parte dela argudia ezazu hiztegia, argazkia eta grafikoa erabiliz. Urdulizko udalerrian bizitzearen bi abantail eta bi eragozpen idatz itzazu.

- Bilbo Handia Bilbok eta inguruko 35 herrik osatzen duten hiri-eremua da.
- Urduliz Bilboko hiritik 15 km-tan den udalerria da, lehen landa herria zen (baserrialdea) baina gaur egun aldiri periurbanoa da biztanleen % 60 Bilbon lan egiten baitute. Argazkian ikus daiteke etxe partikularrak direla, naturaz inguraturik baina hiritar bizimodua ematen dutenak. Garraioen grafikoa ikusten da metroz joan daitekeela Urdulizeraino (L linea: Plentziarantz).
- Urdulizko udalerrian bizitzearen bi abantaila: naturaz inguraturik bizitzea, lasaiago, lurraren prezioa merkeago...
- Bi eragozpen: lanetik urrun (eguneroko migrazio pendularrak) eta aisialdietatik urrun (museo, zinema, ostatu...)

2. **4. dok.:** Bilboko metropoliaren planoan, funtzio bakoitzari lotu gune bana ingura ezazu: merkataritza, aisialdia, kultura, turismoa eta hezkuntza.

Merkataritza: Erriberako merkata, aisialdia (San Mames), kultura (Guggenheim, Euskalduna, Azkuna zentroa), turismoa (Ibaizabalen den ontzi turistikoa)...

- Helburua ez da zuzenketa zehatz-mehatz egitea, baizik eta funtzio desberdinen agerraraztea, eta ahalaz ikusten ez direnak ere (adibidez Deustoko unibertsitatea).



3. **5. dok.:** Bihotzean elkartek salatzen duen arazoa azal ezazu. Hiztegian bila ezazu: zer fenomenori dagokio Bihotzean elkartek salatzen duena?

Gentrifikazioa da aipatua den arazoa, gainturismoak eraginik (apartamentu turistikoen arazoa horren erakusle da)..

4. Eztabaida:

- o Rolak bana itzazu: Bihotzean elkartekoa, Herriko Etxeko ordezkaria eta apartamentu turistikoen enpresen ordezkaria.
- o Gaia: Apartamentu turistikoen kopurua ttipitu behar ote da?

III. Bilboko mugikortasuna

Problematika

Zer dira gaur egun metropoli baten mugikortasun erronkak?

Xerka ezazu!

1. **1. dok.:** Zein garraiobidek bermatzen dute Bilbo eta munduaren arteko komunikazioa?

Munduarekilako komunikazioa hegazkinek eta itsasontziek bermatzen dute (gaurko metropolien dimentsio globala islatzen dute: mundializazioarena).

2. Testuan azpimarra ezazu Bilboko portuak duen interes ekonomikoa.

Bilboko garrantzi komertzialaz eta estrategikoaz gain, gaur egun itsasbazerreko hiri handi guzietan turismoa izigarri garatu da, bereziki itsas ibilaldiak egiten dituzten ontzi erraldoiak direla medio.

Brest eta Finisterretik distantzia bertsuan, Europa atlantikoaren erdigunean dago Bilboko portua. Eskaintzen dituen itsas zerbitzu erregularrek mundu osoko 800 kairekin lotzen dute Bilboko portua. Europa mendebaldeko merkatura hurbiltzeko bide ezin hobea da.

 <https://www.bilbaoport.eus>

3. Zein garraiobidek bermatzen dute Bilbo Handiko barneko komunikazioa? (3. -6. or.)

Trenek, metroak, autobusek, autoek, tranbiak eta txirrindulek dute barne komunikazioa bermatzen.

4. **2-3. dok.:** Bilbo metropoliak kutsadurari buru egiteko plantan ezarri hiru proiektu edo garraio mota azal itzazu.

EGE (emisio gutiko eremua) txirrindula elektrikoen mailegutza sistema eta tranbia.

Ahoz adieraz:

Ahozkoa ez da inprobisatzen :

- Lehenik ahoz adieraziko diren ideiak prestatu behar dira; txostenean agertu nozioak dira (10 bat gehienik): mugimendu pendularrak, aldiri periurbanoa, lana hiri-poloan, metroa, kutsadura, natura...
- Ideiak antola.
- Konektatzaileak hauta (hasteko, bertzalde, ondotik...).
- Sarrera eta bukaera presta.
- Ahoz adierazten treba.

IV. Perspektiban ezartzea

Problematika

Zein dira Frantziako eta Europako metropoli eremurik handienak?



Xerka ezazu!

1. **dok.:** Frantziako hamar hiri-eremu handienak ingura itzazu.
2. **dok.:** Frantziako estatuan hiri-eremuen neurri izagarrien adierazle den datu bat hauta ezazu.
Frantziako populazioaren % 93 hiri-eremuetan bizi da.
Parisen: 13 M biztanle (Frantziako populazioaren % 20)
2. Zer biztanle mota bizi da aldiri periurbanoan?
Aldiri periurbanora bizitzera doan biztanle mota ezkondua da eta familia berriki osatua du (horrek erakusten du gure bizitzeko manera aldatu dela: gure arbasoen garaian landa exodoa gertatu zen, hiriak handitu ziren eta gaur egun landagunea hiritartua da (hiriak hedatu dira eta gure bizimodua ere hiritartu).

3. Urraspideen eta hautuen justifikatzea

Binaka edo hirunaka aritzea interesgarriago da, helburua baita gaian ikasiari zentzua ematea, hots dokumentuen hautatzeko (eta are gehiago hirutan mugatzeko), ikasleek helburuen arabera saikapen zorrotza egin behar dute.